

Urteko 3. Igandea (A)

EBANJELIOA

Kafarnaum herrian jarri zen bizitzen. Horrela, Jainkoak Isaiasen bidez esana bete zen

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa Mateo liburutik 4, 12-23

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakitean, Galileara joan zen Jesus.

Baina Nazaret utzirik, Zabulon eta Neftaliren lurraldean jarri zen bizitzen, aintzira-bazterrean dagoen Kafarnaum herrian. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

*Zabulonen lurraldea
eta Neftaliren lurraldea,
itsas ondoko bidea,
Jordanez haranzko lurraldea,
jentilen Galilea!
Ilunpetan zegoen herriak
argi handia ikusi du.
Itzalpean bizi zirenei
argiak egin die distira.*

Une hartatik hasi zen Jesus honela hots egiten: «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza».

Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zebilela, bi anaia, Simon, Pedro deitua, eta Andres, ikusi zituen, sarea uretara botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet».

Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurrerago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen. Eta dei egin zien. Haiek, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Jesus Galilea guztian barrena ibili zen, hango sinagogetan irakasten. Jainkoaren erregetzaren berri ona hots egiten zuen eta herriko gaitz eta eritasun guztiak sendatzen.

Jaunak esana.

HOMILIA

2017ko urtarrilaren 22a

ZERBAIT BERRI ETA ON

Jesusen jarduera eta mezua bildu zituen lehen idazleak hitz hauekin laburbildu zituen: «Jainkoaren Berri Ona» hots egiten zuela Jesusek. Geroago, gainerako ebanjelariak grekozko termino bera (euangelion) erabili zuten, konbentzimendu bera adieraziz: Jesusek hots egindako Jainkoagan, zerbeit «berri» eta «on» sumatzen zuen jendeak.

Ba ote da Ebanjelio horretan, gaur oraino, gure gizarte axolagabe eta fedegabe honetan, gure egun hauetako gizon-emakumeentzat zerbeit berri eta on bezala irakur litekeen zerbeit? Jesusek iragarritako Jainkoagan suma daitekeenik, eta zientziak, teknikak edo aurrerapenak erraz eskain ez dezakeenik? Nola bizi daiteke Jainkoaganako fedea gure egun hauetan?

Jesusen Ebanjelioan fededunok Jainko hau topatzen dugu: bizia erregalu bezala, bere jatorria Maitasun den errealitatearen azken misterio bezala, sentiarazi eta biziarazten digun Jainkoa. Onuragarri dut neure existentzian neure burua bakarrik eta galdurik ez sentitzea, ezta zoriaren edo halabeharraren eskuetan ere. Badut Norbait, nori eskertu neure bizia.

Jesusen Ebanjelioan Jainko hau topatzen dugu: geure trakeskeriak eta guzti, adorea ematen diguna geure askatasuna defenditzeko, inolako idoloren esklabo gertatu gabe; behin ere ez bizitzeko, ez erdizka, ez berekoi; baizik eta molde berri eta gizakoiagoak ikasten joan gaitezen lanerako eta gozamenerako, sufrimenerako eta maitasunerako. Onuragarri dut eskura izatea Jainko horrenganako neure fede koxkorrenaren indarra.

Jesusen Ebanjelioan Jainko hau topatzen dugu: geure erantzukizuna esnatzen duena, gainerakoez axolagabe ez izateko. Ezin egingo ditugu gauza handiak, baina badakigu parte hartu behar dugula guztientzat bizitza duinagoa eta zoriontsuagoa egiten, gogoan nagusiki premiarik handiena dutenak izanik, defentsarik gabe bizi direnak. Onuragarri dut Jainko honengan sinestea: neure anai-arrebentzat zer egiten dudan sarri-sarri galdetzen didan honengan.

Jesusen Ebanjelioan Jainko hau topatzen dugu: ikusmiratzen didana azken hitza ez duela, ez gaitzak, ez zuzengabekeriak, ez heriotzak. Egun batean, mundualdi honetan ezinezkoa izan denak, erdizka gelditu denak, gure gurarik handienek, gure desiorik barnekoenak beren betea iritsiko dute Jainkoagan. Onuragarri dut neure heriotza konfiantza honekin bizi eta itxarotea.

Jakina, norberak erabaki behar du, bai nola bizi behar duen, bai nola hil nahi duen. Norberak entzun behar du norberaren egia. Niretzat ez dira gauza bera Jainkoagan sinestea

eta ez sinestea. Onuragarri dut mundu honetako ibilbidea honela egitea: Jesusengan agertu den Jainkoak onartzen, indartzen, barkatzen eta salbatzen nauela sentituz.

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

HOMILIA

2014ko urtarrilaren 26a

ZERBAIT BERRI ETA ON

(2016-2017ko A zikloaren homilia ikusi).

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

HOMILIA

2011ko urtarrilaren 23a

JARRAITZAILEAK

Jesusek, Joan Bataiatzailea kartzelan sartu dutela jakin duenean, Nazaret herrixka utzi eta Galileako aintzira-ertzera joan da, bere misioari ekiteko. Haren lehenengo esku-hartzeak ez du inolako itxura handiosik. Ez du egin miraririk. Soilik, bere ahotsari segituan erantzun dioten arrantzale batzuei dei egin die: «Jarraitu niri».

Horrela hasi zen Jesusen jarraitzaileen mugimendua. Hori izan zen egun batean Eliza izango zenaren ernamuin apala. Hor agertu zaigu lehenengo aldiz Jesusen eta harengan sinesten dutenen artean beti izan beharreko harremana. Kristautasuna, beste ezer baino lehen, Jesusi jarraitzea da.

Honek esan nahi du ezen kristau-fedea ez dela haren irakaspeneri atxikitzea soilik, beharrezkoa dela Jesusekiko gure loturak markatzen dituen jokamoldea eta biziera ere. Jesu Kristogan sinestea haren Espirituak arnasturik bizitzea da, Jainkoaren erregetzaren haren egitasmoan lankide izanez eta haren piztuera partekatu ahal izateko haren gurutzea lepoan hartuz.

Betiko tentazioa dugu kristau izan nahi izatea, baina Jesusi jarraitu gabe edo geure fedea dogma bati bai esatera murriztuz edo Jesusi, Jaun eta Jainkoaren Seme bezala harturik, kultua eskaintzera mugatuz. Alabaina, hau da Jesus Jainkoaren Seme gizon

eginagan sinesten dugun ala ez egiaztatzeko irizpidea: hari bakarrik jarraitzen diogun egiaztatzea.

Jesusi atxikitzea ez datza hura gizon bezala mireste hutsean, ezta hura Jainko bezala adoratzeko hutsean ere. Jesus miretsi eta adoratu bai, baina, hari hurbiletik jarraitu beharra sentitu gabe, bere burua kanpoan mantentzen duenak ez du bizi kristau-fedea osorik. Jesusi jarraitzen diona soilik kokatzen da kristau-esperientzia zinez ulertu eta bizi ahal izateko egiazko puntuan.

Egungo kristautasunean egoera paradoxikoa bizi dugu. Hain zuzen, Elizako jendetzat ematen da, ez Jesusi jarraitzen eta jarraitzen saiatzen dena soilik, baita haren urratsei jarraitzea bost axola zaiona ere. Askitzat ematen da bataiatua izatea eta erakundearekin ez haustea norbait ofizialki Jesusen Elizakotzat hartzeko, sekula planteatu ez badu ere hari jarraitzea.

Eliza honetan Jesusez entzun beharko genukeen lehenengo gauza hari baldintzarik gabe jarraitzeko deia da; horretarako, haren ondoren bide egitea eragozten diguten loturetarik, koldarkerietarik eta desbideratsetik geure burua askatuz. Egungo krisialdi hau aukera ona izan liteke kristautasuna bide zuzenean jartzeko eta Eliza Jesusenganantz mugiarazteko.

Geure kristau-elkarte eta –taldeetan era dinamikoan bizitzen ikasi beharra dugu, begiak Jesus josirik, haren urratsei jarraituz eta bizitza gizatar egiten haren lankide izanez. Beste modu batean gozatuko genuke orduan geure fedez.

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>

José Antonio Pagola Itxaldiaren Bideoak ikusteko:
<http://iglesiadesopelana3v.blogspot.com>